

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2025eko ekainaren 13an onartutako erabakiaren laburpena: erabaki horren bidez, Vitoria-Gasteizen biltzarrak eta ekitaldiak antolatzeke eta hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortzeko eta sustatzeko laguntzen 2025. urterako deialdia eta oinarriak onetsi ziren

BDNS(Identif.): 842869.

Diru-laguntza orokorre bidezko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalan aurki daiteke. Diru-laguntzak: (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/842869>).

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalan kontsulta daiteke (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>), baita Vitoria-Gasteizko Udalaren webgunean ere: <http://www.vitoria-gasteiz.org>.

Lehen. Xedea

Erabakiaren xedea da Vitoria-Gasteizen biltzarrak eta ekitaldiak antolatzearekin eta turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzearekin zerikusia duten jardueretan aritzen diren pertsona fisiko edo juridikoei edo legez eratutako entitateei laguntzak emateko baldintzak ezartzea.

Norgehiagoka bidezko konkurrentzia baliatuko da deialdia izapidetzeko, eta hiru dirulaguntza-ildotan banatuko da deialdia:

1. Vitoria-Gasteizen egitekoak diren biltzarrak antolatzea.
2. Vitoria-Gasteizen egitekoak diren ekitaldiak antolatzea.
3. Hiriaren irudia turismo-helmuga jasangarri gisa sustatuko duten turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzea.

Bigarrena. Onuradunak

Pertsona fisikoak edo juridikoak eta egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen duten eta legez eratuta dauden entitateak (1. eta 2. ildoetan, ez da eskatuko egoitza soziala eta fiskala Vitoria-Gasteizen izatea, baldin eta gutxienezko parte-hartzaileak 150 badira biltzarretan eta 300 ekitaldietan, parte-hartzaileak gutxienez ehuneko 30 estatukoak edo nazioartekoak badira eta biltzarren eta ekitaldien iraupena gutxienez 2 egun erreskadan bada; 3. ildoan, berriz, produktu edo esperientzia turistiko berria Vitoria-Gasteizen gauzatzen bada.

Hirugarrena. Oinarriak

2023ko apirilaren 21ean egindako ohiko bilkuran, Vitoria-Gasteizko Udalbatzak Vitoria-Gasteizko Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorrari hasierako onespina ematea erabaki zuen. Behin betiko ordenantza 2023ko uztailaren 28ko ALHAOn argitaratu zen (88. zenbakia), eta 2023ko urriaren 1ean jarri zen indarrean. Ordenantzaren xedea da Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntzak emateko prozeduraren oinarri arautzaile orokorrak ezartzea.

Tokiko Gobernu Batzarrak, 2025eko ekainaren 13an, Vitoria-Gasteizen biltzarrak eta ekitaldiak antolatzeko eta Vitoria-Gasteizen irudia turismo-helburu jasangarri gisa sustatzeko turismo-produktu eta -esperientzia berriak sortu eta sustatzeko laguntzen deialdiaren oinarriak onetsi zituen 2025erako.

Deialdia zein oinarriak udalaren web-orrian daude, ikusi nahi izanez gero (www.vitoria-gasteiz.org) eta baita herritarrei laguntzeko bulegoetan ere.

Laugarrena. Zenbatekoa

Laguntza-deialdi honek 130.000,00 euroko zuzkidura du, 2025erako onetsitako udal aurrekontuko 0826.4333.47104 partidaren kontura ("Toki Garapenerako Bulegoa Hiria sustapena"). Hiru jarduera-ildotan banatzen da: 60.000,00 euro 1. ildorako, 50.000,00 euro 2. ildorako eta 20.000,00 euro 3. ildorako.

Laguntzaren gehieneko zenbatekoa onartutako gastuen ehuneko 50ekoa izango da; dirulaguntzaren gehieneko muga 10.000,00 eurokoa izango da 1. eta 2. ildoetan aurkeztutako proiektu bakoitzerako, eta 5.000,00 eurokoa 3. ildoan aurkeztutako proiektu bakoitzerako.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Deialdia ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik hilabeteko epea igaro arte.

Enpresa bakoitzak eskabide bat egin beharko du proiektu eta laguntza-ildo bakoitzeko (gehienez bi proiektu ildo bakoitzeko).

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 17a

*Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta
Turismoaren Saileko Administrazio Zerbitzuko burua*
JOSEBA ANDONI GARCÍA-ARDANAZ ARDANAZ